

Funtsezko Jarduerak



-Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Gure proiektua erabiltzeko behar ditugun baliabide fisikoak mugikorra eta ordenagailuak dira, ordenagailuan gure aplikazioaren diseinua nolakoa izango den erabakitzeke eta egiteko erabiliko dugu eta mugikorra, gure aplikazioaren inguruan probak egiteko, nola funtzionatzen duen ikusteko eta ea aldaketaren bat egin behar dugun edo ez jakiteko. Baliabide intelektualak, aplikazioaren diseinua egiteko Nahiaren sormena, Junerek antolakuntzarako eta diru kontuak eramateko dituen abileziak, Leire bezeroak bilatzeko duen abilezia aterako du baita ere enpresatara bisitak egiteko eta Udaneke informatikaren inguruan dakitena aterako dute proiektua aurrera eraman ahal izateko.



Proiektua aurrera eramateko aplikazioaren iragarkia egin beharko degu eta iragarki hori zabaldu gainerako aplikazioetan (jokoetan, sare sozialetan...) horrela iragarkiaren bidez ezagu egingo dugu gure aplikazioa eta proiektua aurrera ateratzea lortuko dugu. Beste aukera bat degu, ikastoletan gure egitasmoaren inguruko aurkezpen bat egitea eta zertan datzan azaltzea bertako ikasleei era horretan ere ezagun egingo dugu.

Nahia aplikazioaren diseinuan berrikuntzak egiten arituko da, aplikazioa egokiagoa bihurtzeko. Leirek bezeroak bilatuko ditu baita ere gure hitzaldiak emateko orduan nora joan; eskoletara, enpresetara. Informatikako arazoak edukiz gero, hori konpontzeaz arduratuko da Udane. Junek berriz, aplikaziaren diru kontuak kudeatuko ditu. Horrez gain, denok elkarri laguntzen saiatuko gara, egunen batean oso lanpetuta baldin badago gure lankidea, bere lana murriztuko diogu. Gure enpresaren inguruan emango ditugun hitzaldietan binaka joango gara eta bikote horiek txandakatuz, horregatik artearen bukaeran hurrengo astea nola burutuko dugun antolatuko dugu. Hitzaldirik edukiz gero zein joango den, zer lan egin behar dugun aste horretan...